# Joaquín Villa

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako diputatua

Diputado para la Innovación y la Sociedad del Conocimiento de la Diputación Foral de Gipuzkoa

## "Gipuzkoa berriaren bereizgarrietako bat da Lanbide Heziketa"

## "La Formación Profesional es uno de los rasgos definitorios de la nueva Gipuzkoa"

Harro dago Joaquín Villa Berrikuntza eta Jakintzaren Gizarterako foru diputatua Gipuzkoako Foru Aldundiak Lanbide Heziketaren alde betidanik egin izan duen apustuaren oinordeko izateaz. "Abaguneetatik harago, etorkizuneko lankidetza estrukturalerako oinarriak finkatzea ahalbidetzen diguten iragana eta oraina ditugu", adierazi du.º

Joaquín Villa, diputado foral para la Innovación y la Sociedad del Conocimiento, se siente orgulloso de ser el heredero de la apuesta de la Diputación guipuzcoana por la Formación Profesional. "Hay un pasado y un presente –dice– que nos permiten establecer las bases para un horizonte de colaboración estructural para el futuro, más allá de coyunturas".



**- Foru Aldundia aitzindaria izan zen Lanbide Heziketaren sustapenean. Nola gogoratzen duzu hastapen haietan erakundeak egin zuen lana?**

– Miresmen handiz gogoratzen du une hura, uste baitut orduko ekimena eta bultzada egiazko jarduera politikoaren eta konpromiso sozialaren isla direla. Ahulezia eta mehatxu ugari nabarmentzen ziren une hartan: L.H.-ren prestigio eza, heziketaren errealitatearen eta enpresen beharren arteko urruntasuna, hobetzeko modukoak ziren hornidura eta ekipamenduak… Lanbide Heziketak pertsonen garapenerako, ehun ekonomiko lehiakorrerako eta Gipuzkoaren gizarte kohesiorako izan zezakeen balio estrategikoa ulertu zen, eta egun Europar Batasuna den honetara bildu berriak izateagatik lor zitezkeen diru-ekarpenak baliatu ziren.
Jarraitutasun horizonteko politika integral bat martxan jartzean gauzatu Imanol Murua buru izan zuen hausnarketa

**- La Diputación Foral fue pionera en el impulso de la Formación Profesional. ¿Cómo recuerda el papel de la institución en los inicios?**

– Yo recuerdo con admiración ese momento, ya que creo que tal actuación e impulso es el reflejo de lo que es el verdadero actuar político y el compromiso social. Se trataba de un momento con debilidades y amenazas: falta de prestigio de la F.P., alejamiento entre la realidad educativa y las necesidades de las empresas, unas dotaciones y equipamientos francamente mejorables. Se entendió el valor estratégico de la F.P. para el desarrollo de las personas, del tejido competitivo económico y el desarrollo y la cohesión social de Gipuzkoa, y, se aprovechó la oportunidad de la aportación financiera por nuestra reciente incorporación a la actual Unión Europea.
Una reflexión que se convirtió en la puesta en marcha de una política integral con un horizonte de continuidad, lide-

**"Hezkuntza sistema da gure jarduera-printzipioen funtsezko oinarria: esperimentatu, ikasi eta berritu"**

**"El sistema educativo es la base fundamental de nuestros principios de actuación, que son: experimentar, aprender e innovar"**

hura. Eusko Jaurlaritzarekin (Hezkuntza) lankidetzan, irakasleen prestakuntza, ekipamendu aurreratuen hornikuntza eta ikastetxeen eta horien inguru sozio-ekonomikoaren arteko integrazioa sustatu ziren, betiere protagonismoa ikastetxeen esku utzirik. Beste era batera esanda, Foru Aldundia, bere sustapen-gaitasunaz baliatuz, Gipuzkoa hobe bat definitzeko orduan L.H.-k zuen balioa ulertzeko gai izan zen lehenik. Bigarrenik, politika zehatzen bidez L.H.-k egun duen zirkulu bertutetsua bideratzeko eta errazteko gauza izan zen. Nire ustez, orduz geroztik betiko lotuta gelditu dira Gipuzkoako Foru Aldundia eta L.H.-ren suspertzea.

**- Zein beste alde nabarmenduko zenituzke Foru Aldundiaren eta Lanbide Heziketa zentroen arteko lankidetzaren historian?**

– Bereziki azpimarratu nahiko nukeen aldea iraunkortasun horizontean planteatutako lankidetza bera da. Helburuak partekatzean, elkarrenganako konfiantzan eta lan gaitasunean oinarritutako lankidetza. Politika eta jarduera berriak diseinatzen eta garatzen joan diren heinean, areagotuz joan den lankidetza. Abaguneetatik harago, etorkizuneko lankidetza estrukturalerako oinarriak finkatzea ahalbidetzen diguten iragana eta oraina ditugu.

**- Informazioaren teknologia berrien alorrean eguneratzeko, Foru Aldundiaren laguntza dute L.H.-ko zentroek. Nola bideratzen da laguntza hori?**

– Informazioaren eta jakintzaren gizartearen garapenaren aldeko apustu argia egin du Foru Aldundiak, sail bakoitzaren jarduera arrunten bidez zein eGIPUZKOA ekimenaren bidez. Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako saila, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin lankidetzan, teknologia berriak hezkuntza sisteman integratzea ari da bultzatzen. Horretarako, eGELA izeneko hitzarmenaren itzalean, irakasleen prestakuntza, oinarrizko azpiegitura digitalen hornikuntza (konektagarritasuna, batik bat), ikastetxe guztietan gela digital bana ezartzea eta beste biltzen dituen ekimena ari gara garatzen. Ekimen horren baitan, halaber , IKT-en erabilera trinkoan oinarritutako zerbitzu pedagogikoak garatzen ari gara. Zerbitzu horiek ikasketa-prozesuen hobekuntzan eragingo dute, eta zentroen eta irakasleen arteko kolaborazio-dinamikak (komunitate birtuala) bultzatuko dituzte. Haratago doan planteamendua da, IKTB-en alorreko eguneratzea. L.H. Informazioaren eta Jakintzaren Gizartean integratzea bultzatu behar da eta zeregin horretan, bistakoa denez, IKT-ek funtsezko betekizuna dute, ez horniduraren ikuspegitik soilik, baita beste ikuspegi askotatik ere: irakasleen rola, metodologia pedagogikoak, informazio berrietara iristeko aukera, prestakuntzaren erabiltzaile diren pertsona, enpresa eta erakundeetara iristeko aukera, prestakuntza prozesuen pertsonalizazioa eta abar.

**- Zer nabarmenduko zenuke zure ardurapeko sailak L.H.-ren esparruan egiten duen lanetik?**

– Sail berri honek eguneratu egin nahi du, eta ahal bada hobetu, bere garaian Foru Aldundiak Lanbide Heziketarekin hartu zuen konpromisoa. Konpromiso hori lankidetza historia arrakastatsuan oinarritzen da baina, garai berrien aurrean, arau eta jarduera berriak behar ditu. Hortaz, aurrerantzean ere L.H. bizialdi osoko prestakuntzaren inguruko politiken garapenean eragile nagusietako bat izatea da sail honen nahia, prestakuntza hori baita Gipuzkoa berritzailea –jakintzaren eta berrikuntzaren lurraldea- diseinatzea ahal-



**"Gipuzkoako Foru Aldundia eta L.H.-ren suspertzea betiko gelditu dira lotuta"**

**"La Diputación Foral de Gipuzkoa siempre quedará ligada con el relanzamiento de la F.P."**

rada por Imanol Murua y en coordinación con el Gobierno Vasco (Educación), que promovía la formación del profesorado, la dotación de equipamiento avanzado, la incardinación entre las escuelas y su entorno socio-ecónomico; pero en el que el protagonismo recaía en las propias escuelas. En otras palabras, la Diputación, desde su capacidad de promoción, supo, en primer lugar, valorar el valor de la F.P. para la definición de una Gipuzkoa mejor, y, en segundo lugar, fue capaz de contribuir y facilitar, con políticas concretas, a diseñar el círculo virtuoso en el que se encuentra la actual F.P. Creo, que desde entonces, la Diputación Foral de Gipuzkoa siempre quedará ligada con el relanzamiento de la F.P.

**- ¿Qué otros aspectos destacaría en la historia de la colaboración de la Diputación con los centros de Formación Profesional?**

– El aspecto que más quisiera destacar es el mismo hecho de la colaboración dentro de un horizonte de permanencia. Colaboración basada en compartir objetivos y en una mutua confianza y capacidad de trabajo. Colaboración que se ha visto acrecentada en la medida que se han ido diseñando y desarrollando nuevas políticas y actuaciones. Hay un pasado y un presente que nos permiten establecer las bases para un horizonte de colaboración estructural para el futuro, más allá de coyunturas.

**- La Diputación está apoyando a los centros de F.P. en su puesta al día en las nuevas tecnologías de la información. ¿De qué manera?**

– La Diputación tiene definida una clara apuesta por el desarrollo de la sociedad de la información y del conocimiento, tanto a través de las actuaciones ordinarias de cada departamento como por un compromiso específico a través de la iniciativa denominada eGIPUZKOA. Desde el Departamento para la Innovación y la Sociedad del Conocimiento, en coordinación con el Departamento de Educación del Gobierno Vasco, estamos apoyando la integración de las nuevas tecnologías en el sistema educativo. Y, para ello, venimos desarrollando al amparo de un convenio que denominamos eGELA una iniciativa que integra la formación del profesorado, la dotación de infraestructuras digitales básicas (conectividad, fundamentalmente), la implantación de un aula digital en cada centro educativo, el desarrollo de servicios pedagógicos basados en el uso intensivo de TIC´s y que redunden en la mejora de los procesos de aprendizaje y el apoyo a dinámicas colaborativas, comunidad virtual, entre los centros y el profesorado. Es un planteamiento que va más allá de y una puesta al día en las denominadas NTIC´s. Se trata de facilitar la integración de la F.P. en la Sociedad de la Información y del Conocimiento, donde, es evidente, las TIC´s tienen un papel fundamental, no desde la dotación, sino de los cambios que supone en el papel del profesorado, las metodologías pedagógicas, acceso a nuevas informaciones, acceso a nuevas personas, empresas y entidades usuarias de la formación, la personalización de los procesos formativos, etc.

**- ¿Qué destacaría de la labor actual de su departamento respecto de la F.P.?**

– Este nuevo departamento quisiera actualizar y, si es posible, mejorar el compromiso que en su día tomó la Diputación ante la FP. Un compromiso que, ante nuevos tiempos, precisa de nuevas reglas y nuevas actuaciones; pero que parte de una historia exitosa de colaboración. Así, la F.P. queremos que siga siendo uno de los agentes privilegiados para el desarrollo de las políticas de la formación a lo largo de toda la vida como eje que nos permita diseñar la Gipuzkoa innovadora: territorio de la innovación y del conocimiento. Y, para ello, el sistema educativo es la base fundamental de nuestros principios de actuación, que son: experimentar, aprender e innovar.
Ahí, pues, vamos a seguir trabajando, para lograr un protagonismo de la ciudadanía; un modelo específico de forma-

bidetuko duen ardatza. Eta, horretarako, hezkuntza sistema da gure jarduera printzipioen funtsezko oinarria: esperimentatu, ikasi eta berritu.
Ildo horretatik jarraituko dugu lanean, honako helburu hauek lortzeko: herritarren protagonismoa; aldaketaren pizgarri izango den bizialdi osoko prestakuntza eredu berezia; hezkuntza prozesuan IKT-ak informazio eta komunikaziorako tresna gisara erabiltzea, ereduaren aldaketa bultzatuz; kudeaketa aurreratuko organizazioen garapena; espiritu enpresa-sortzailea; enpresa kultura jakin bat, arriskuak onartzea, sormena eta berrikuntza sustatuko dituen hezkuntza eta prestakuntza esparru bat itxuratzea…

**- Zer nolako balioa ematen dio foru erakundeak Lanbide Heziketari?**

– Gipuzkoaren bereizgarrietako bat da Lanbide Heziketa; batez ere, Gipuzkoa berriaren bereizgarrietako bat, ahaleginaren ahaleginez hezkuntzaren alorrean pertsonen garapena, gaitasun profesionalen garapena eta gizartearen garapena uztartzea lortu baitu, betiere kalitatean eta ingurune sozio-ekonomikoarekiko konpromisoan oinarritutako ereduak erabilita. Heziketa eta enplegagarritasuna uztartzeko gai izan den prestakuntza-sistema da, azken batean.

**- Etorkizunera begira, zein bide hartuko dute zure ustez Lanbide Heziketaren alorreko aldaketek?**

– L.H.-k askotariko erronka ugariri egin behar die aurre. Eta, finkatutako helburuak betetzeko, hezkuntza-komunitatearen (familiak, ikasleak eta irakasleak), Hezkuntza Sailaren, enpresen, elkarteen eta erakundeen borondatearen eta konpromisoaren beharra izango du. Sail honen ikuspegitik, baina, uste dugu aldaketa horren xedea bizialdi osoko ikaskuntza (oinarrizko prestakuntza, lanerakoa eta etengabekoa) sustatuko duen oinarrizko sarea sortzea dela; enplegagarritasuna eta lanik gabe daudenen laneratzea sustatzea; genero ikuspegitik, hezkuntzan, lanean eta gizartean emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna bultzatzea; kultura ekintzailea eta enpresa-espiritua sustatzeko duen gaitasuna onartzea; erabilera didaktikorako ekipamendu produktibo aurreratuz hornitzea; IKT-ak irakaskuntza/ikaskuntza prozesuetan txertatzea (irakasleen prestakuntza, berariazko azpiegiturak eta ekipamenduak hornitzea, produktu/baliabide pedagogikoak sustatzea). Etengabeko berrikuntzak eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak izan behar dute horren ezaugarri nagusiak, eta erreferentzia bilakatu behar da Europan eta munduan.

**- Zein asmo ditu etorkizunerako zure Sailak Lanbide Heziketari dagokionez?**

– Argi dago zein den Foru Aldundiaren nahiz sail honen helburua: Gipuzkoa berritzailea. Eta, Lanbide Heziketaren kasuan, horrek esan nahi du L.H. biziarteko ikaskuntza sustatuko duen oinarrizko sare bihurtu behar dela. Pertsonen (garapen pertsonala), enpresen (lehiakortasuna) eta gizartearen (gizarte kohesioa) uztartu behar dira. Edota, Europar Batasunaren hitzak erabilita, hezkuntza eta prestakuntza sistemen kalitatea eta eraginkortasuna hobetu, pertsona guztiei bermatu hezkuntza eta prestakuntza sistemetarako sarbidea, eta kanpora zabaldu hezkuntza eta prestakuntza sistemak.

ción a lo largo de toda la vida que actúa como motor del cambio; una aplicación de las TIC's como herramientas de información y comunicación en el proceso educativo favoreciendo el cambio de modelo; el desarrollo de organizaciones avanzadas en gestión; el fomento del espíritu de creación de empresas; y un ámbito educativo/formativo que promueva una cultura empresarial y a fomentar la asunción de riesgos, la creatividad y la innovación.

**- ¿Qué valor se le concede a la Formación Profesional desde la institución foral?**

– La F.P. es uno de los rasgos definitorios de Gipuzkoa, y, sobre todo de la nueva Gipuzkoa, en la medida que desde el propio esfuerzo ha sido capaz en el ámbito educativo de integrar el desarrollo de las personas, el desarrollo de las competencias profesionales y el desarrollo social, con unos modelos basados en calidad y el compromiso a su entorno social socio-económico. Un sistema formativo que ha sido capaz de integrar la educación y la empleabilidad.

**- De cara al futuro, ¿hacia donde piensa que irán los cambios en el ámbito la Formación Profesional?**

– Son muchos y variados los retos a los que debe enfrentarse la F.P. Y, para alcanzar los objetivos que se plantee va a necesitar de la voluntad y el compromiso de la propia comunidad educativa (familias, alumnado y profesorado), el Departamento de Educación, las empresas, entidades e instituciones. Pero desde el punto de vista de este departamento creemos que esos cambios deben estar orientados a ser una red fundamental para promover el aprendizaje a lo largo de toda la vida (formación inicial, ocupacional y continua); promover la empleabilidad y la inserción laboral de las personas en desempleo; incorporar, desde un enfoque de género, la igualdad entre mujeres y hombres en la educación, en el empleo, en la sociedad; asumir su función de promoción de la cultura de emprender y del espíritu de empresa; dotarse de equipamiento productivo avanzado para uso didáctico; integrar las TIC´s en los procesos de enseñanza/aprendizaje (formación del profesorado, dotación de infraestructuras y equipamiento específico, promoción de productos/recursos pedagógicos); que la innovación permanente y el partenariado público-privado sean sus características definitorias; y ser referencia en ámbitos europeos y mundiales.

**- ¿Qué planes de futuro tiene su departamento respecto de la Formación Profesional?**

– El objetivo de esta Diputación Foral y de este departamento es claro: una Gipuzkoa innovadora. Y, que en el caso de la Formación Profesional, supone convertir a la FP en una red fundamental para promover el aprendizaje a lo largo de toda la vida. Es preciso incardinar los intereses de las personas (desarrollo personal), las empresas (competitividad) y la sociedad (cohesión social). O, dicho en términos de la Unión Europea, mejorar la calidad y la eficacia de los sistemas de educación y formación, facilitar el acceso de todas las personas a los sistemas de educación y formación, y abrir los sistemas de educación y formación al mundo exterior.

**"Pertsonen (garapen pertsonala), enpresen (lehiakortasuna) eta gizartearen (gizarte kohesioa) interesak uztartu behar dira"**

**"Es preciso incardinar los intereses de las personas (desarrollo personal), las empresas (competitividad) y la sociedad (cohesión social)"**

